


**Denbora honetan guztian, egoera salatu eta elkarrizketa eta negoziaziorako eskaria luzatu dugu etengabe.** Bilera eta batzorde ugaritan eskatu diogu Hezkuntza Sailari hezkuntza inklusibo eta kalitatezko baten alde murrizketa politika hauek albo batera uzteko.

Jaurlaritzak ordea, bere politiken norabidea aldatzeko inolako asmorik erakutsi ez eta mobilizaziora jo beste biderik ez digu utzi. Horrela, orain bi ikasturte ELA, LAB eta Steilas sindikatuok, diagnosia partekatu, egoerari buelta emateko beharrezko liratekeen aldarrikapenak adostu eta greba eta mobilizazio dinamika bat abian jartzea hitzartu genuen hezkuntza publikoko lau sektoretan: Haurreskoletan, Heziketa Berezian, Irakasleetan eta Sukalde eta Garbiketan.

Hiru sindikatuok hitzartutako aldarrikapenen baitan bultzatu ditugun mobilizazio eta grebek langileen babes zabala jaso dute, baita Jaurlaritza larritu eta urteetako bere inmobilismotik ateratzera behartu ere. Bide hau ez da erraza izan, eta sindikatu bakoitzak mobilizazioa eta greba bultzatzeko izan duen ekimena eta griña ere oso desberdina izan da une bakoitzean. Bereziki zaila izan da LAB mobilizazio eta greba dinamikan sartu eta mantentzea, hasieratik hezkuntza publikoa ardatz eta murrizketa politikari aurre egitea oinarri zuen mobilizazioa eta grebak bultzatzeko oztopoak jarri bait ditu.

**Eusko Jaurlaritzak, ez du benetako negoziazio prozesu bat eraiki nahi izan**, alderantziz, ahalegin latzak egin ditu gure aldarrikapen nagusienei erantzun gabe edo oso modu eskasean erantzunda greba eta mobilizazioak alde batera utz ditzagun, ondoren eduki nagusirik gabeko negoziazio batean trabatzeko: Besteak beste, familiak bahitzea eta hezkuntza publikoa kaltetzea leporatu digu, salatzen ari garen eta hezkuntza publikoaren benetako arazo direnak ezkutatu ta benetako eztabaida desbideratzeko asmoz. Eduki eta proposamen berririk gabeko mahai tekniko eta bilerak ere deitu ditu negoziazio itxura eman asmoz, sindikatu guztiekin batzuetan eta interesatu zaionarekin bakarrik besteetan aldebiko bilerak antolatu ditu gure arteko frikzioak sortzeko, literaturaz eta zehazgabetasunez betetako proposamenak luzatu dizkigu eta funtsezkoak diren edukiak lotu gabe utziz etorkizuneko batzordeetara desbideratu nahi izan ditu.

Tamalez, aurtengo **martxoak 14 eta 15eko greben aurretik, LABek, grebetara deitutako lau sektoreetatik hirutan grebak deskonbokatzeko erabakia hartu eta publiko egin zuen** (Haurreskoletan, Heziketa Berezian eta Sukalde eta Garbiketan deskonbokatu zituen grebak, irakasleetan mantenduz). Beste sindikatuok komunikabideen bidez izan genuen erabaki honen berri. Ondoren, martxoaren 6an hiru sektore hauetan Hezkuntza Sailaren proposamenak sinatu edota ontzat eman zituen (Haurreskoletan LABek sinatu zuen, Sukalde eta garbiketan LABek CCOO eta UGTrekin batera, eta Heziketa Berezian bere oniritzia eman zioten LABek eta CCOOek).

LABen **mugimendu hark mobilizazio dinamika zaildu** eta hiru sindikatuon arteko kolpe handia suposatu **bazuen ere**, martxoak 14 eta 15eko **grebak gauzatu genituen**, ELA eta Steilasek lau sektoreetan mantenduz deialdia eta LABek irakasleetan soilik.

Martxoko **bi greba egunek eta antolatutako mobilizazioek babes zabala izan zuten**, bereziki Irakasleetan, Heziketa Berezian eta Sukalde eta Garbiketan. Horrela, greba eta mobilizazioak izanda Jaurlaritza mugiaraztera behartu duten tresna eraginkor bakarrak, langileak mobilizazioari emandako babes zabala kontuan izanda eta mahai gainean zeuden proposamenak hobetzeko eta gure aldarrikapenetara gerturatzeko marjen handia egonda, **ELAtik oso garrantzitsua ikusten genuen une horretan mobilizazioarekin jarraitzea.**

Aste beteko greba baten zailtasunen jabe giñen, baita LABek hartutako erabakiek eragina zutenaren jabe ere. Beraz, hurrengo hilabeteetarako aurreikusitako greba eta mobilizazioekin aurrera egitea planteatu genien beste sindikatuei. Aurrez adostutako greba eta mobilizazio diseinuaren birformulazio bat berradosteko prest agertu eta proposamenak ere egin genizkien.

**Orain ikusten dugu ordea, beste sindikatuek grebekin ez jarraitzeko erabakia hartua zutela.** Steilasek, aurrez LABek egin bezala, Haurreskoletan, Heziketa Berezian eta Sukalde eta garbiketan mobilizazioekin ez jarraitzeko erabakia jakinarazi zigun. Ondoren gainera, apirilak 13ko Heziketa Bereziko mahai negoziatzailean, sektore honetako langileak martxoko bi greba egunetan parte hartzera deitu zituen arren, aurrez nahikotzat jo ez zuen proposamen berbera sinatu zuen LAB eta CCOOekin batera.

Irakasleetan, apirilak 23rako aste beteko greba geneukan aurreikusita hiru sindikatuok. Aurreko hilabeteetan ikastetxeetan ehundaka batzarretan sozializazio lan handia egin eta martxoak 14 eta 15eko grebei irakasleek ikaragarrizko babesa ematetik gentozen. Jaurlaritzak orduan, greba bezperan eta gure aldarrikapenei erantzun egokirik eman gabe mobilizazioa deskatibatzeko saikera garbi batean, apirilak 18rako mahai sektoriala deitu zuen.

Une horretan, **ELA izan zen grebak mantentzearen alde agertu zen sindikatu bakarra**. Halere, batasun sindikalaren mesedetan, presio eta mobilizazio dinamika mantentzeko estrategia okerra zela ulertu arren, apirileko mahaian gure aldarrikanepetara gerturatzen zen proposamenik zegoen ikusi arte itxarotea onartu genuen. Ez mahai horretan ez ondorengoetan ere (maiatzak 4 eta maiatzak 14) ez da hori gertatu ordea.

Hezkuntza publikoko lau sektoreetan sinatutako **akordioek ez diete greba eta mobilizazioetara eraman gintuzten aldarrikapenei, ez eta sektore hauetako arazoei ere erantzuten** (*ikusi 2 eta 3 orrialdeetako taula).

Langileok mobilizazioei emandako babesa, Jaurlaritza krisi aurreko egoerara itzultzea ahalbideratuko lukeen proposamen bat aurkeztera behartzeko adinakoa izaten ari zen. Eta hain zuzen ere mobilizazioekin jarraitzea hain garrantzitsua zen une horretan bide hori bultzatzen jarraitzerai uko egitea akats bat eta aukera galdu bat bezala ikusten dugu ELAtik.

Halere prozesu orok uzten dizkigu irakasgaiak, eta prozesu honek ere utzi digu nagusia den bat: **posible izango bada Jaurlaritza beste norabidean batean doazen erabakiak hartzera behartzea, mobilizazio eta greba dinamika indartsu baten bidez izango da.**

Horregatik, ELAk irakasgai hau ondo ikasi eta aurrerantzean ere mobilizazioa eta greben bidea bultzatzen jarraituko du, prekarietatea gure eskoletatik baztertu, eta euskal gizarteko haur, nerabe, gazte eta heldu guztiek aukera berdintasunean heziko dituen euskal eskola publikoa nahi eta behar dugulako.

> **El papel de los sindicatos no puede ser el de mostrarse agradecidos por la reversión de una pequeña parte de los recortes impuestos unilateralmente por la administración; nuestra función es organizar y movilizar al personal para hacer frente a los duros ataques sufridos**




ELA EUSKAL SINDIKATUA
2018 Ekaina

# hezkuntza publikoa




## Mobilizazioekin jarraituz gero eduki hobeak lortu ahalko genituzke

**Azken urteetan eta krisiaren aitzakipean, murrizketa oso gogorrak ezarri dizkigute Zerbitzu publikoetan oro har eta Hezkuntza Publikoan zehazki. EAJ, PSE eta PPren ardura eta babesarekin egungo politika ekonomiko eta publikoekin murrizketa egoera hau betikotu nahi dute Zerbitzu Publikoak deskapitalizatuz.**

- 2009tik 2018ra hezkuntza inbertsio publikoa Barne Produktu Gordinaren %4,3 izatetik %3,5 izatera pasa da, hau da, proportzionalki 596 milioi € galdu ditu. Eta modu berezian murriztu eta kaltetu du Hezkuntza Publikoa.
- Zenbaki absolutuetan 2018ko hezkuntza aurrekontua 2009ekoa baina 107 milioi € gutxiagokoa da.
- 30.000 ikasle gehiago matrikulatu dira eta apenas hazi dira plantillak.
- Gelako ikasle ratioa %9,1 hazi (gelako ia 2 ikasle gehiago).
- Ordezkapenak ez dira egiten edo astebetetik aurrera egiten dira.
- 10 langiletik 4 behin-behinekoa da (Sukalde eta Garbiketan 10etik 6) eta ezegonkortasun arazo larriak daude ikastetxe eta plantilletan, milaka langileren etorkizuna airean dagoelarik.
- Hezkuntza Behar Bereziak izendatzeko irizpideak gogortu dira, Heziketa Bereziko lan-kargak handitu dira eta ez dago langile nahikorik.
- Aniztasuna eta hezkuntza behar bereziak ongi lantzeko ez dugu baliabide nahikorik.
- Ikastetxeetako administrazio lanak eta proiektuak lantzeko plantilla eta errekurtso nahikorik ez.
- Sukalde eta jangelak edota garbiketa zerbitzuak %90ean pribatizaturik daude eta egun publikoa den %10a pribatizatzeko asmo irmoa dute.
- Zaharkituriko azpiegiturak berritzeko dotazioak guztiz eskasak dira.
- Ikasle eta familientzat lagungarri geroz eta eskasagoak dira.
- Haurreskoletako kuotak jasan ezinak dira (210€ hilean), plazak bete gabe daude eta matrikulazioa beherantz doa.
- %8-15 (17.300-41.183€) eros-ahalmen galera ezarri digute.
- Gaixotu eta baja hartzea zigortzen digute.
- Erretiroa atzeratu eta zaildu digute.
- Gure hezkuntza sistema txikitu eta Madrilen menpe jartzen duen LOMCE gure eskoletan barneratu dute.
- Euskalduntzean atzerapausoa den hirueleko markoa bultzatu eta euskarazko murgiltze eredua baztertu du gobernuak.
- Hezkuntza enpresa eta patronalen zerbitzura jarri dute…

(4. orrialdean jarraitzen du)

